



INGURUMEN ADIERAZPENA **WISESA 2017**



2018KO MAIATZA

0. AURKIBIDEA

0.-AURKIBIDEA.....1

1.-ERAKUNDEREN AURKEZPENA..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

- 1.1 - ERAKUNDEAREN AURKEZPENA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 1.2 - ERAKUNDEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK ETA KOKALEKUAK¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 1.3 - ERAKUNDEAK EGINIKO JARDUERAK¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 1.4 - ANTOLAMENDUKO EGITURA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

2.-INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

- 2.1 - INGURUMEN POLITIKA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 2.2 - INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 2.3 - BARNEKO ETA KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 2.4 - INTERESEKO ALDEAK ETA BEHARKIZUNAK.....¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 2.5 - ARRISKUAK ETA AUKERAK. EKINTZAK¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

3.-INGURUMENEN ALDERDIAK ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

- 3.1 - ZUZENEKO INGURUMENEN ALDERDIAK¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 3.2 - ZEHARKAKO INGURUMENEN ALDERDIAK¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

4.-INGURUMENEN PROGRAMA 2017 ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

5.-HELBURU PROPOSAMENA 2018 ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

6.-INGURUMENEN JOKABIDEA27

- 6.1 - ENERGIA-ERAGINKORTASUNA 28
- 6.2 - MATERIALEN KONTSUMO-ERAGINKORTASUNA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 6.3 - URA 36
- 6.4 - HONDAKINAK 38
- 6.5 - BIODIBERTSITATEA¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
- 6.6 - IGORPENAK 47

7.-INGURUMENEN JOKABIDEA PROIEKTUETAN¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

8.-INGURUMENEN JOKABIDEA OBRETAN ETA SUSTAPEN BERRIETAN¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

9.-INGURUMENEN LEGE-BEHARKIZUNEN ETA BESTE BEHARKIZUN BATZUEN BETETZE-MAILA ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

10.-ELKARRIZKETA IREKIA INTERESATURIKO ALDEEKIN¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

11.-INGURUMENEN GORABEHERAK..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

12.-BALIOZKOTZE-DATUAK ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

1. ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

1.1- ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (hemendik aurrera **VIKESA**) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako sozietate publikoa da, etxebizitzaren eta luraren gaineko lurralde politika publikoa garatzeko sortua, baita hiriak birgaitzeko eta birsortzeko ere.

1990ean sortu zen, eta gaur egun, titularitate hauen artean banantzen da sozietate kapitala: %78,63, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa; %18,59, Kutxabank eta %2,78 Laboral Kutxa.

2005ean, **VIKESA**k Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezarri eta egiaztatu zuen, UNE-EN ISO 14001 Arauan oinarritua. Kudeaketa Sistema Integratuan dago txertaturik (Kalitatea, Ingurumena eta Laneko Arriskuen Prebentzioa), eta Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa Aurreratuko Eredura bideratuta dago (Euskalit).

VIKESAk kudeaketa integratuko sistema zeukan, UNE-EN ISO 9001 Arauan oinarritua eta egiaztatua, hauex lortzeko: “*Babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea eta elementu libreak merkaturatzea*”; bulego nagusietan eta bezeroaren arretarako bulegoetan egiten da lan hori.

2016ko urtarrilaren 1ean, Orubide erakundea **VIKESA**n txertatu zen; etxebizitza babestua eraikitzeko bizitegi-lurra eskuratzeko, kudeatzeko eta urbanizatzeko lanean dihardu erakundeak. Gertaera hori eta UNE-EN ISO 14001:2015 Arau berriaren 2015eko iraileko argitalpena direla-eta, **VIKESA**ren Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren norainokoa eguneratu eta egoera horretara egokitu behar izan zen. Hortaz, **VIKESA**k ingurumenaren kudeaketan urrats bat haratago egiteko eta 1221/2009 (EB) Erregelamenduaren (EMAS III) beharkizun osagarriak ezartzeko erabakia hartu zuen.

Horrez gain, **VIKESA**k, EMAS 1505/2017 Erregelamendu berria argitaratu ondoren, bere Sistema Integratua beharkizun berrietara egokitzeari ekin zion.

Beraz, eta Europako EMAS 1505/2017 Erregelamenduaren bidez aldatu zen Europako EMAS 1221/2009 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritik, **VIKESA**k Ingurumeneko Adierazpen hau eman du, bere erakundeko ingurumenaren hobekuntzaren kudeaketaren eta bilakaeraren gaineko informazioa emateko publikoari eta alde interesatu guztiei.

1.2- ERAKUNDEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK ETA KOKALEKUAK

VIKESAk Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ematen ditu zerbitzuak, eta 3 bulego dauzka bezeroei banakako arreta eskaintzeko bulegoetan bertan. Bulegoetan harrera zerbitzua dago, non pertsonen informazioa ematen zaien eta, aldi berean, **VIKESA**n lan egiten duten pertsonenganako bisitak bideratzen diren.

Hona hemen **VIKESA**ren datu nagusiak:

Sozietatearen izena	VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.- VISESA		
Forma juridikoa:	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikitako sozietate publikoa		
Produktu/zerbitzu nagusia	Babesturiko etxebizitza eta lurra, saltzeko eta alokatzeko		
Norainokoa:	<i>Azterlanak egitea; lurrak erostea, kudeatzea eta urbanizatzea.</i> <i>Babes publikoko etxebizitza sustatzea eta etxebizitzak birgaitzea.</i> <i>Elementu libreak merkaturatzea (lokalak, garajeak eta trastelekuak).</i> <i>Hirigintzako eta antolaketako laguntza teknikoak.</i> <i>Bere sustapenetan energia-eraginkortasuna mantentzeko eta kontrolatzeko laguntza teknikoak.</i>		
SORRERA:	4110 (Higiezinaren sustapena)		
Bulego nagusiko helbidea:	Gamarrako Ataria 1A – 2. solairua (El Boulevard eraikina)-Gasteiz		
Telefona:	945 21 40 50	Faxa:	945 06 84 40
E-maila:	visesa@visesa.eus	Web orria:	www.visesa.eus

Ondoren, grafikoan bilduko da bulego nagusiaren eta bezeroarentzako 3 arreta bulegoen kokapena:



Lantokiei dagokienez, esan behar da Gasteizko egoitza nagusian egiten dutela lan **VISESako** kide gehienek. Egoitza horretatik kudeatzen da jarduera osoa, eta ingurumen aldagaia txertatzen da bere zerbitzuen eta jardueren kudeaketan.

Bezeroaren arretarako bulegoetan (BAB), funtsean administrazio-lana eta bezeroari laguntzeko lana egiten da, eta Gasteizko BAB egoitza nagusiarekin batera kontrolatzen eta kudeatzen da. Bizkaiko BAB eta Gipuzkoako BAB alokairuko bulegoetan daudenez eta, kasurik gehienetan, zerbitzu gehienak jabeen erkidegoarenak direnez, ez du kontrolatu beharreko alderdi eta beharkizun askorik ingurumenaren aldetik.

1.3 ERAKUNDEAK EGITEN DITUEN JARDUERAK

Proposaturiko helburu hau lortzeko jarduerak egiten ditu: **azterlanak, egitea; lurrak erostea, kudeatzea eta urbanizatzea; babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta etxebizitzak birgaitzea; elementu libreak merkaturatzea (lokalak, garajeak eta trastelekuak); hirigintzako eta antolaketako laguntza teknikoa; bere sustapenetan energia-eraginkortasuna mantentzeko eta kontrolatzeko laguntza teknikoa**, bere bulego nagusietan eta bezeroaren arretarako bulegoetan egiten direnak. Hala, honelaxe laburbildu daitezke **VISESAK** egiten dituen jarduerak:

- *Bulegoetan egiten dituen jarduerak*
- *Proiektuak kudeatzeko eta plangintzak egiteko jarduerak*
- *Proiektu eta obra-zuzendaritzako jarduerak*
- *Produktua emateko, bezeroari laguntzeko eta stocka kudeatzeko jarduerak*
- *Energia-zerbitzuen kudeaketa*
- *Aholkularitza eta biderapen teknikoa*

Bulegoetan egiten dituen jarduerak

Prozesuen eta Sistemen Sailaren eta Pertsona eta Zerbitzu Orokorrren Sailaren bitartez kudeatzen dira bulegoetan eginiko jarduerak, eta **VISESAK** egiten dituen gainerako jarduerekin loturiko administrazio-jarduerak gauzatzea dute ezarrita.

EMAS Erregelamenduaren eskakizunen arabera sortu da ingurumena kudeatzeko sistema, betiere ISO 14001:2015 Arauan oinarrituriko kudeaketa sistema abiapuntu hartuta.

Plangintzako eta proiektuak kudeatzeko jarduerak

Eragiketen eta lurren eskuraketen bideragarritasunari buruzko barneko azterketak eta inbertsioak egin ondoren, beren beregi kontrataturiko laguntza teknikoaren eta **VISESako** proiektuen arduradun baten bidez burutzen dira jarduera horiek.

Azpikonataturiko proiektuetan erabiltzen da. Horien artean, hauexek nabarmendu daitezke:

- Lurraren plangintza eta kudeaketa: hirigintzako plangintza proiektuak, hirigintzako kudeaketa proiektuak, etab. biltzen dira, besteak beste.

- Urbanizazio edota eraikuntza obren proiektuen kudeaketa: aurreproiektuak, oinarrizko proiektuak, etab. biltzen ditu, besteak beste.

Proiektu eta obra-zuzendaritzako jarduerak

Urbanizazio nahiz eraikuntza obrak izan daitezke. Azpikontratatu eta eraikuntza-enpresak egin ohi dituzte, eta ingurumena kudeatzeko sistema daukate.

Oinarria, funtsean, proiektu faseko jardueren eta urbanizazio edota eraikuntza obren multzoa da. Haien artean, obra zibilak, eraikuntzak, eta instalazioak burutzeko proiektuak daude, besteak beste.

Obra esleitu ondoren hasten dira obren amaierako ikuskapen eta kontroleko jarduerak, **VISESako** teknikarien eskutik betiere.

Produktuak emateko, bezeroari laguntzeko eta stocka kudeatzeko jarduerak

Salmentaren edo alokairuaren kudeaketaren barruan, etxebizitzaren, lokalen, garaje-plazaren eta trastelekuen kudeaketa sartzen da. **VISESako** bezeroaren arretarako bulegoetan egiten da jarduera hori gehienbat.


Energia-zerbitzuen kudeaketa

VISESak energia-zerbitzuak ematen ditu etxebizitzaren hiru sustapenetan 2010. urteaz gero. Izan ere, diseinuaren aldetik, instalazio jakin batzuk ditu ezarrita, instalazioen girotzerako eta erosotasunerako energia-beharren eskaria betetzeko. Zerbitzuon ardatza, gehienbat, energia kontsumoen kontrola eta instalazio horien mantentzearen kudeaketa da.

Aholkularitza eta biderapen teknikoa


VISESak bere bulegoetan ematen dituen zerbitzuak: aholkuak eta biderapen teknikoa beste erakunde batzuei hala nola Alokabideri, udalei, etab. Batik bat administrazioko eta kudeaketako zerbitzu teknikoak dira.

Horiek jarduketa guztiak eta estrategiako eta laguntzako jarduerak burutzeko, prozesu-mapa du ezarrita **VISES**Ak, ondoren emango dena:




1.4-ANTOLAKUNTZAKO EGITURA

VISESAko giza taldea 77 lagunekin zegoen osatuta 2017ko abenduaren 31n. Honelaxe daude banatuta organigrama funtzionala honetan:



Hala, hona hemen Ingurumena Kudeatzeko Sisteman eragin handiena duten zuzendaritzen egitura:



Pertsonengan oinarrituriko antolaketako egitura da, prozesuetara bideraturiko egitura horizontalaren bidez. Hori baliatuta, ardatz nagusia bezeroaren kudeaketa da, eta interes-talde guztiak sartzen ditu egituran. Hala, prozesuak hobetzeko taldeek eta kudeaketa taldeek osatzen dute egitura.

Zuzendari nagusia da **VISESAko** organo betearazle nagusia, eta enpresa-kudeaketaren zuzendaritza dagokio. Administrazio Kontseiluak ezarritako ahalmenak dauzka. Zuzendaritza horrek **VISESAko** Zuzendaritza Batzordearen laguntza eta aholkularitza jasotzen ditu.

2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA

2.1- INGURUMEN POLITIKA

	INGURUMEN POLITIKA
---	-----------------------------

VISESA lurzorua kudeatzen eta babes publikoko etxebizitza sustatzen duen sozietate publikoa da. Hiriko berroneratze eta berritzea bultzatzen, laguntzen eta sustatzen ditu era aktiboan, eta etxebizitza nahiz azpiegitura publikoak ere birgaitzen ditu, irisgarritasuna hobetuz eta lurralde iraunkor baten sustapena bilatuz, ingurumenaren eta lurralde orekaren ikuspuntutik.

Gure jarduerak zuzenean natura eta hiriko ingurunean du eragina, honako hauen bidez: gure esku-hartzeen eragin fisikoa, eraikuntzako gure produktuen erabilerak dituen ingurumen-ondorioak eta hura lortzeko beharrezkoak diren jardueren ingurumen-eragina. Zeregin horiek gure proiektuak gauzatzeko kontratatutako enpresek egiten dituzte.

Gure ingurumen-konpromisoa gure kudeaketako alderdi askotan modu praktikoan ageri da, gure **Hornitzaile Politikan** edo gure **Bezero, Produktu eta Zerbitzuaren Politikan** ikus daitekeen moduan. Gainera, ingurumenaren hobekuntza berrikuntzako gure ardatz nagusietako bat da, gure **Berrikuntza Politikak** jasotzen duen moduan.

VISESaren zuzendaritzatik, ingurumenarekiko dugun konpromisoa jakitera eman nahi dugu, honako era honetan zehaztuta:

JARDUKETA PRINTZPIOAK

- ⊙ Gure jarduerari aplika dakizkikeen ingurumen mailako **lege baldintza** guztiak betetzen ditugu, izenpetutako gure akordioetatik sortutako beste baldintza guztiak edo gure sozietateak parte hartzen duen beste batzuekin izenpetutako lankidetzak proiektuetatik sortutakoak.
- ⊙ Enpresa publiko gisa dugun traktore lana betez, alde batetik, **sentsibilizazioaren** eta ingurumen-hobekuntzaren **sustatzaile**, eta bestetik, gure langileen artean nahiz interes taldeetan ingurumen praktika iraunkorrak sartzearen sustatzaile izan nahi dugu, batez ere gure enpresa hornitzaile, bezero eta erabiltzaileen artean.
- ⊙ **Ingurunea babesten** modu aktiboan laguntzen dugu honako printzipio hauek aplikatuz: kutsaduraren prebentzioa; baliabideen kontsumo arduratsu eta iraunkorra; klima aldaketaren arintze eta egokitzea; eta biodibertsitatea babestea gure jarduerak, produktuek eta zerbitzuek sortutako ondorioei aurre egiteko.
- ⊙ Gure politika korporatiboaren eta bikaintasun printzipioaren oinarri gisa, gure ingurumeneko kudeaketan **etengabe hobetzen** jarraitzea bilatzen dugu, adierazleak finkatuz, eta ingurumeneko gure helburuak berrikusiz eta hobetuz ingurumeneko gure kudeaketa sistemaren bitartez.
- ⊙ Ingurumeneko hobekuntza eta jardunbide egokien gure iturri nagusi bat **elkarrekin egiten dugun ikasketa eta berrikuntza** da toki mailako nahiz nazioarteko proiektuetan parte hartuz. Horri esker, gainera, alor horretan izandako aurrerapenen zaintza proaktiboa egin dezakegu hobera egiteko aukera-iturri gisa.

Beraz, **ingurumeneko kudeaketa sistema bat dugu**, gure bulegoetako jarduera eta kokaleku guztietarako ezarri eta ziurtatu dena, eta haren barnean ingurumen-aldagaia eta eragina dugun hiru esparru handiekiko jarduketak sartzen dira: proiektuak, obrak eta VISESaren bulegoak.

Ingurumenari buruzko gure lana zehazten eta jakinarazten dugu *GRI iraunkortasun memoriak* eta *EMAS Ingurumen Adierazpena* eginez.

Nork onartua: Zuzendari Nagusia

Carlos Quindós Fernández


2017ko apirilaren 25a

2.2- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN DESKRIBAPENA

VISESAk Kudeaketako Sistema Integratua dauka, urtero ikuskatu eta ziurtatzen dena, betiere UNE-EN ISO 9001:2015 eta UNE-EN ISO 14001:2015 Arauekin bat etorrira eguneratua eta Europako 1505/2017 Erregelamenduaren bidez aldaturiko Europako EMAS 1221/2009 Erregelamendura egokitua. Sistema hori ezarrita, bermatuta gelditzen da aplikatu beharreko beharkizunak betetzea, ingurumeneko prozedurak eta ildoak sistematizatzea, eta gauzatu egiten du ingurumenaren babesa etengabe hobetzeko eta jarduerari loturiko eraginak gutxitzeko duen konpromisoa.

VISESAk antolaketako egitura, jardueren plangintza, erantzukizunak, jardunak, prozedurak eta prozesuak zehazten ditu, baita bere Kudeaketa Politikan bildutako konpromisoak garatzeko, ezartzeko, berrikusteko eta eguneratuta izateko beharrezko baliabideak ere.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema, prozesuen bidezko kudeaketan oinarrituta eta barneko nahiz kanpoko hainbat dokumentutan garatzen dena, prozesuen plangintza, eragiketa eta kontrol eraginkorra bermatzen dituen egituraren arabera.



2.3-BARNEKO ETA KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA

VISESAk erakundearentzat egiteke dauden barneko eta kanpoko alderdien gaineko azterketa egin du. Horretarako, alde batetik 2017an barneko alderdiak zehazteko kudeaketa aurreratuko ereduaren arabera eginiko autoebaluazioaren emaitza erabili du oinarritzat, eta bestetik, kanpoko alderdiak identifikatzeko plan estrategikoa egiteko buruturiko diagnostikoa.

Azterketa horri eta Plan Estrategikoari berari esker, urteko kudeaketa plana egiteko sarrera du erakundeak. Halaber, arriskuak eta aukerak identifikatzeko eta lehenesteko kontuan hartu den DAFO egin da.

2.4-INTERESEKO ALDEAK ETA BEHARKIZUNAK

VISESArentzat interesekoak diren aldeen azterketa egin da. Horretarako, interes-taldeak identifikatu eta lehenetsi egin dira, VISESAk horiengan duen eragina eta eragina izateko ahalmena kontuan hartuta.

Ondoren, interes-talde horien beharrekin erlaziorik eta jakintzarik handiena duten VISESAko kideek parte hartu duten focus group-en bidez, beharrak eta igurikapenak identifikatu eta aztertu dira, eta VISESAren ustez beharkizun bihurtzen direnak ezarri dira. Halaber, bestelako informazio-iturriak izan dira aintzat hala nola gogobetetasun-inkestak.

2.5-ARRISKUAK ETA AUKERAK. EKINTZAK

Espero diren emaitzetan eragina izan dezaketen arriskuak eta aukerak zehaztu eta ebaluatu ditu VISESAk. Horretarako, hauexekin loturiko arriskuak eta aukerak aztertu dira:

- Ingurumeneko alderdi garrantzitsuak
- Lege-beharkizunak eta aplikatu beharreko bestelako beharkizunak
- Intereseko aldeen beharrak eta igurikapenak
- Erakundearen eta bere testuinguruaren azterketa

Hortaz, VISESAk arrisku eta aukera horiek lantzeko beharrezko ekintzak identifikatu ditu, baita arriskua gertatuz gero burutu beharreko jarduketak ere.

3. INGURUMENEO ALDERDIAK

VISESAk, ezarritako Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren baitan betiere, barneko prozedura du ezarrita (ingurumeneko alderdiak identifikatzeko, ebaluatzeko eta erregistratzeko prozedura), hain zuzen ere egiten dituen jarduerekin lotuta dauden edo egon daitezkeen bizitza-ingurumeneko alderdi guztien identifikazioa eta ebaluazioa sistematizatzeko; bizitza-zikloarekin zerikusia duten alderdiak dira.

Urtean behin identifikatuko dira eginiko jardueren loturiko ingurumeneko alderdiak, aldaketarik edo jarduera berririk ezartzen ez bada behinik behin.

Haztapan-sistema da ingurumeneko alderdiak ebaluatu eta horien garrantzia zehazteko erabilitako metodologia, hain zuzen ingurumeneko alderdi bakoitza ezarritako irizpideekin ebaluatzeko. Ematen den puntuazioari esker, ingurumeneko alderdi bakoitzari esleituriko garrantzi-mailaren arabera zenbatetsi daiteke.

Ingurumeneko alderdien ebaluazioaren ondorioz, puntuaziorik handiena lortu duten ingurumeneko alderdien zerrenda lortzen da, ingurumeneko alderdi garrantzizkotzat joko direnak. Hain zuzen ere alderdi horiek oinarri hartuta ezarriko ditu Zuzendaritzak urteko ingurumeneko hobekuntzarako eta kontrolerako helburuak.

Ingurumeneko alderdia ingurumenarekiko jarduna ahalbidetu dezakeen erakundeko osagaia dela aintzat hartuta, honelaxe identifikatu dira ingurumeneko alderdiak **VISESA**n: zuzeneko ingurumeneko alderdiak eta zeharkako ingurumeneko alderdiak.

3.1 -ZUZENEO INGURUMENEO ALDERDIAK

Zuzeneko ingurumeneko alderdiak **VISESAk** garatzen dituen jarduerekin, produktuekin eta zerbitzuekin daude lotuta, horien gaineko zuzeneko kontrola baitu kudeaketaren aldetik.

Zuzeneko ingurumeneko alderdien multzoan, hauexek sartzen dira:

- Materialen, energiaren eta baliabide naturalen kontsumoak edo erabilerak.
- Atmosferarako igorpenak
- Isuriak
- Hondakinak
- Zarata-igorpenak
- Lurraren kutsadura
- Etab.

Horien artean, hauexek bereizten dira: ohiko funtzionamenduan sortutakoak, ezohikoak eta larrialdietan sortutakoak.

- Ohiko egoera: jardueraren ohiko funtzionamendu planifikatua dagoenean eta haren gaineko kudeaketa kontrolatzen denean.
- Ezohiko egoera: egoera irregularra, bitxia. Inguruabar horretan, askotan gertatzen ez den edozein egoera har daiteke ezohikotzat edo anormaltzat, adibidez, mantentze-zerbitzuko lantzean behingo jarduerak.
- Larrialdia, arrisku batekin lotua (kalte baten kontingentzia edo hurbiltasuna), non ingurumenari, pertsonari edo ondasunari kaltea eragiteko arriskua baloratzen den.

Zuzeneko ingurumeneko alderdien ebaluazioa

Zenbait ebaluazio-irizpide aplikatuz egiten da zuzeneko ingurumeneko alderdien ebaluazioa, ebaluaturiko zuzeneko alderdi motaren arabera. Irizpide horietan, puntuazio bat erabiltzen da, alderdi bakoitzari emandako garrantzi mailaren arabera zenbaketa egitea ahalbidetzen duena. Hauexetarako:

- Ohiko egoeran sortutako alderdiak: magnitudea, toxikotasuna edota arriskua dira ebaluaziorako erabiltako parametroak. Alderdi bakoitzak bere neurri-unitateak dituen gero, eskala bat ezarri du VISESAk, 2-10eko balorazio-tartea duen irizpidea aplikatuta.
- Ezohiko egoeran sortutako alderdiak: gertatzeko probabilitatea edo maiztasuna edota ondorioen magnitudea dira erabiltako parametroak. Horretarako, 2-10eko balorazio-tartea ezarri da irizpide bakoitzerako.
- Larrialdietan sortutako alderdiak: gertatzeko probabilitatea edo maiztasuna edota ondorioen magnitudea dira erabiltako parametroak. Horretarako, 2-10eko balorazio-tartea ezarri da irizpide bakoitzerako.

Zuzeneko ingurumeneko alderdi garrantzitsuak

Hona hemen alderdien ebaluazioan lorturiko zuzeneko ingurumeneko alderdi garrantzitsuak:

ALDERDIAK ZUZENEOAK	ZENTROA	INGURUMEN-ERAGINA	LOTURIKO HELBURUA
Fluoreszente hondakinak sortzea	Bulego nagusia eta Arabako BAB	Baliabide naturalak agortzea Lurraren eta lurpeko uren kutsadura Biodibertsitatearen galera	EZ
Pila hondakinak sortzea	Bulego nagusia eta Arabako BAB	Baliabide naturalak agortzea Lurraren eta lurpeko uren kutsadura Biodibertsitatearen galera	EZ
AEE hondakinak sortzea	Bulego nagusia eta Arabako BAB	Baliabide naturalak agortzea Lurraren eta lurpeko uren kutsadura Biodibertsitatearen galera	EZ
Toner hondakinak sortzea	Bizkaiko BAB	Baliabide naturalak agortzea Biodibertsitatearen galera	EZ
Elektrizitate kontsumoa	Bizkaiko BAB Gipuzkoako BAB	Lurraren berotzea Negutegi-efektua	BAI
Gasolio kontsumoa	Bulego nagusia eta Araba BAB Gipuzkoa BAB	Lurraren berotzea Negutegi-efektua	BAI

ZUZENKO ALDERDIA	ZENTROA	INGURUMEN-ERAGINA	LOTURIKO HELBURUA
Fotokopiengatiko toner kontsumoa	Bulego nagusia eta Arabako BAB	Baliabide naturalak agortzea Basoen eta biodibertsitatearen galera	EZ
	Bizkaiko BAB		
Elektrizitateko CO2 igorpenak sortzea	Bizkaiko BAB	Lurraren berotzea Negutegi-efektua Airearen kalitatearen galera	BAI
	Gipuzkoako BAB		
Gasolioko CO2 igorpenak sortzea	Bulego nagusia eta Arabako BAB	Lurraren berotzea Negutegi-efektua Airearen kalitatearen galera	BAI
	Gipuzkoako BAB		
	Bizkaiko BAB		

Ez da helburu objektiborik ezarri fluoreszente, pila eta AEE hondakinetarako, zeren eta hondakinen oso sorkuntza espezifikoagatik sortzen baitira, bulego nagusiko eta Arabako BABeko lokal baten (fluoreszenteak eta ekipamendu berriren bat) birmoldaketa dela-eta. Gainerakoetan, ez da horrelakorik sortu.

Halaber, toner hondakinetan eta kontsumoetan ez da helburu espezifikorik ezarri, horren garrantziak lotura handia baitu Bizkaiko bezeroaren arretarako bulegoan eginiko jardura handiagoarekin.

Ezohiko egoeran eta larrialdietan sortutako zuzeneko ingurumeneko alderdiei dagokienez, esan behar da ez dela egoera horrekin loturiko ingurumeneko alderdi garrantzirik ezarri. Izan ere, eragin nagusiak uraren eta lurraren balizko kutsadurarekin du zerikusia.

3.2 -ZEHARKAKO INGURUMENEO ALDERDIAK

Zeharkako ingurumeneko alderdiak VISESAren eta VISESAk egiten dituen jardueren, produktuen eta zerbitzuen eta hirugarrenen arteko elkarreraginaren emaitzarekin daude lotuta. Alderdi horietan zentzuzko nolabaiteko eragina izan dezakete.

VISESAk honako hauen azpikontratazioarekin loturiko zeharkako ingurumeneko alderdiak ebaluatzen ditu:

- Kontraten eta hornitzaileen ingurumeneko kudeaketa.
- Proiektuen diseinua.
- Diseinu energia eraikuntzako proiektuetan.
- Obrak.
- Energiaren kontrola VISESAren sustapenetan.
- Lurra sustatzea, berreskuratzea eta urbanizatzea.

Ebaluatu beharreko zeharkako alderdi sortaren edo tipologiaren arabera aldatuko lirateke alderdi horiek ebaluatzeko erabilitako irizpideak. Horien artean, hauexek nabarmentzen dira: eragina, ingurumena kudeatzeko graduko fakturazioa, kezka/eragina, etab...

Nabarmentzekoa da zeharkako ingurumeneko alderdi garrantzitsuak:

ZEHARKAKO ALDERDIAK		ZENTROA	INGURUMEN-ERAGINA	LOTURIKO HELBURUA
Kontratek eta hornitzaileek ingurumenaren aldetik duten jokabidea (I. SIST.)		Erakunde osoa	Baliabideak agortzea Igorpenak eta partikulak sortzea	EZ
VISESAren jarduerarekin loturiko erakundeen ingurumen eginkizuna (Alokabide)		Erakunde osoa	Baliabideak agortzea Igorpenak eta partikulak sortzea	BAI
Etxebizitzan erabiltzaileen ingurumeneko eginkizuna		Erakunde osoa	Baliabideak agortzea Igorpenak eta partikulak sortzea	EZ
Proiektu ekodiseinatuak		Erakunde osoa	Klima aldaketa Biodibertsitatearen galera Baliabide naturalak agortzea	BAI
Ekodiseinua duen erakundea, baina Visasaren irizpideak aplikatuta soilik		Erakunde osoa	Klima aldaketa Biodibertsitatearen galera Baliabide naturalak agortzea	BAI
Ekodiseinua duen erakundea, Visasaren diseinu irizpideak aplikatuta		Erakunde osoa	Klima aldaketa Biodibertsitatearen galera Baliabide naturalak agortzea	BAI
Energia-zerbitzuak	Sortutako elektrizitatea	A30 AR1 (103 etx.)	Klima aldaketa Igorpenak eta partikulak sortzea	EZ
	Berreskuraturik o beroa	A30 AR1 (103 etx.)	Klima aldaketa Igorpenak eta partikulak sortzea	EZ
	Igorpenen aurrezpena	A30 AR1 (103 etx.)	Klima aldaketa Igorpenak eta partikulak sortzea	EZ

Nahiz eta I. SIST. garrantzizkoa den hornitzaileek eta kontratek lantokietan ingurumenaren aldetik duten jokabidearen ebaluazioan, ez dugu berariazko ekintzarik burutuko, zeren eta, gure ustez, dagoeneko hondakinen kudeaketa egokia baitarama.

Energia-birgaikuntzako proiektuen garapenean zuzeneko erlazioaren bidez lantzen dugu etxebizitzan erabiltzaileen (bezeroak) ingurumenaren aldetik duten eginkizunean loturiko garrantzia (Korporazioko proiektua).

Ez da berariazko helbururik ezarri energia-zerbitzuetan, zeren eta zerbitzuok burutu direneko hiru sustapenetako baten instalazioa mantentzeko prozesuan bertan zehazturikoak izango baitira burutu beharreko ekintzak.

Ez da identifikatu eraikuntzaren diseinuarekin, obrarekin eta berrerabilitako lurren energiarekin loturiko zeharkako ingurumeneko alderdi garrantzitsurik.

4. INGURUMENeko PROGRAMA 2017

Identifikaturiko ingurumeneko alderdi guztiek ez dute garrantzi bera, eta ebaluazio-prozesuak ahalbidetzen du garrantzi hori baloratzea. Ondoren, garrantzizkotzat ebaluatutako ingurumeneko alderdiak aintzat hartzen dira **VISESak** bere ingurumenaren inguruko xedeak eta helburuak ezar ditzan.

Zenbait helburu, haien maila edo entitatea dela-eta (Estrategiarekin bateratuago), **VISESaren** 2017ko Kudeaketa Planean daude sartuta. Gehienbat eragiketetarako diren helburuak, berriz, koordinatu egiten dira, Prozesuen eta Sistemen Sailak ezar ditzan **VISESaren** SGA EMASeko arduraduna den aldetik. Zuzendaritza Batzordeak onesten ditu Ingurumeneko Programaren helburuak, modu bateratuan eta erakundeko gainerako politika estrategikoekin uztartuta, betiere zuzendaritza bakoitzak dagokion kudeaketa bere gain hartuta.

Helburuak urtero ezarriko dira, eta ahal den neurrian, zenbakarriak eta lorgarriak izango dira. Horrez gain, bat etorri beharko dute ingurumen politikarekin, etengabeko hobekuntzak dakarren ingurumenaren babesarekiko konpromisoa barne.

Ondoren, **VISESak** 2017rako zehazturiko ingurumeneko programa emango da:

INGURUMENKO 2017KO HOBEKUNTZA PROGRAMA

HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURADUNAK	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
Bulegoekin loturiko energia-kontsumoa gutxitzea (Visesa BN eta Bizkaiko BAB eta Gipuzkoako BAB)	%0-%2 murriztea	Jardun onei eta kontzientziazioari buruzko 2 mezu egitea EPEA: 2017ko abendua	Barneko lanaldia (3 ordu)	Prozesu eta Sistema Saila	- Gure sustapenetako eta gure bulegoetako energia-kontsumoaren eraginkortasunarekin loturiko 2 mezu sartu dira intranet korporatiboaren bidez, hau da, ingurumen politikaren jakinarazpena eta bizikleta elektrikoak hiriko tarte laburretan erabiltzeko eta autoak tarte horietan erabiltzea saihesteko ezarpenari buruzko jakinarazpena. - Aurrera jarraitzen dugu sistemak aplikatzeko gure politikarekin: • Bulegoak birmoldatzea edo erretzen diren luminariak aldatzea: kontsumo eraginkorragokoak jarriko dira (LED) haien orde. • Inprimaketako pertsona bakarreko ekipamenduen orde funtzio askotako taldeko inprimagailuak jartzea. - 2017/2016ko energia-kontsumoaren bilakaera: • Guztizko energia kontsumoa – Bulegoak, guztira: -%4,8 • Energia kontsumoa, orotara – Bulego nagusia eta Arabako BAB: -%3,9 • Energia kontsumoa, orotara – Bizkaiko BAB: -%23,1 • Energia kontsumoa, orotara – Gipuzkoako BAB: %10,8 - Bi egoitzatan energia kontsumoa gutxitzea lortu da, eta emaitza orokorra izan da bulego guztietan %4,8ko murrizpena izatea. Energia kontsumoan, faktore elektrikoak nahiz Visesak auto parkearen erregaia hartzen dira kontuan. Helburuaren %100 bete da 2017an
		Kontzientziazioari eta kontsumo arduratsuari buruzko mezuak jartzea argi-etengailu orokorren ondoan EPEA: 2017ko abendua	Kostua (50 €)	Zerbitzu Orokorrak	
		Ingurumeneko sentsibilizazioari buruzko 2 mezu ematea komunikabideetan EPEA: 2017ko abendua	Barne lanaldia (3 ordu)	Prozesu eta Sistema Saila	

INGURUMENEO 2017KO HOBEKUNTZA PROGRAMA

2. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABIDEAK	ARDURADUNA	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
Erosketa berdeko irizpideak sartzea gutxienez bulegoko materialen 2 produktutan, baita zerbitzuen lizitazio 1 ere (Visesa BN eta Bizkaiko BAB eta Gipuzkoako BAB)	2 produktu Lizitazio 1	Ingurumeneko irizpideak dakartzaten edo iraunkorrak diren produktuen zerrenda eskatzea bulegoko materialaren hornitzaileari EPEA: 2017ko abendua	Barneko lanaldia (8 ordu)	Zerbitzu Orokorrak	- Probak egin dira birziklaturiko bulegoko materiala (boligrafoak eta idazteko bestelako materiala), baina orain artean ez dira arrakastatsuak izan. - Egunero egiten da lan, eskariak ingurumenaren aldetik hobetze aldera, bai produktu iraunkorragoei eta ekologikoei dagokienez (ahal dugun heinean), bai bidalketa zentralizatuaren hobekuntzari dagokienez, joan-etorriak saihestu eta hobetzeko eta karbono-aztarna txikiagoa izateko. - Gaur egun, ingurumeneko irizpideak ezarri dira 3 produktu/zerbitzutan (ibilgailuak, garbiketa zerbitzua eta catering zerbitzua). 3 produktu/zerbitzu horietatik, catering zerbitzukoaren eta ibilgailuen erosketaren lizitazioak egin dira. - Horrez gain, norabide aldaketa izan du kontratazio publiko berdearen mahaiak 2017an, eta aldaketa egin da, enpresek bat egin dezaten erosketako eta kontratazio publiko berdeko urteko planak burutzeko konpromisoarekin. Hortaz, proiektua hurrengo urtera igaro da ingurumeneko helburu gisa. Helburuaren %100 bete da 2017an
		Bulegoko material berria erostean, aukera desberdinak baloratzea EPEA: 2017ko abendua	Barneko lanaldia (8 ordu)	Zerbitzu Orokorrak	
		Partaidetza eta lankidetzak kontratazio publiko berdearen mahaiarekin EPEA: 2017ko abendua	Barneko lanaldia (10 ordu)	Zerbitzu Orokorrak Visesako Sail Teknikoa Visesako Sail Juridikoa	
		Ingurumeneko irizpideak sartzea zerbitzuen kontratazio bateko lizitazioa. EPEA: 2017ko abendua	Barneko lanaldia (20 ordu)	Zerbitzu Orokorrak Visesako Sail Juridikoa	

INGURUMENKO 2017KO BERRIKUNTZA PROGRAMA

3. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURADUNA	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
<u>ZAINTZA</u> <u>TEKNOLOGIKOA</u> <i>Kolaborazio-proiektuetan parte hartzea, eko-materialak aplikatze aldera (ZEHARKAKO ALDERDIAK)</i> EPEA: 2017ko abendua	2 proiektutan parte hartzea (ekintzen %75)	Ikerketa proiektu piloturako proposamena ("Zurezko etxebizitzak" (Eraikal programan)	VISESAKO KUDEAKETA PLANEAN definituriko baliabideak	Visesako Sail Teknikoa	- 2015eko irailean, ikerketa proiektuaren proposamen hau aurkeztu zuen VISESAk: "Zurezko etxebizitzak" proiektuan, zurezko teknologia aurreratuko eraikuntza sistemak aztertzen dira Euskadi eta Kanada erkatuta. VISESA Hondarribian egiten ari den babes ofizialeko zurezko etxebizitzak erkatzen dira Kanadako Structurlam British Columbia (Kanada) eraikitzen ari den enpresaren eraikin batekin. Teknologia aurreratuko zurezko xaflen bidez eraikitzen dira bi eraikinak; kontralaminatua edo CLT deritzona da. 2015eko irailean aurkeztu zen proposamena, eta onespina 2016ko urtarrilean jakinarazi ziguten. Aurreikuspenen arabera, 2017ko abenduan bukatuko da lana. Ez da lortu proiektuaren %100 urtean, pixka bat atzeratu egin direlako proiektuaren epeak, eta 2018rako helburu bihurtu da. - 2017ko urtarrilean, otsailean eta martxoan, obra eta eginiko lanak ezagutarazi ziren, sektoreko talde profesionalek obrara eginiko bisiten bidez. Helburuaren %90 bete da 2017an
		Eko-materialak garatzeko proiektuan parte hartzea (OSIRYS Europako proiektua (7PM, I+ G+ b)		Visesako Sail Teknikoa	- Martxoan, Osirys materialak jarri ziren, honako laborategi hauetan entregatzeko: Tecnaliaren Kubik eraikina eta Kalitatea Kontrolatzeko Laborategia Eusko Jaurlaritzaren eraikuntzan. Produktuak garatzeko fasean dago proiektua, eta hitzarturikoa baino maila handiagoa lortu da lehengai naturalen eta berriztagarrien aldetik. - Maiatzean eta ekainean, Osirys irtenbideak ezarri ziren Morlanseko sustapenetako etxebizitzetan eta barneko aire kalitateko entseguak egin ziren. - Proiektuari buruzko bilera eta hitzaldia: maiatzaren 30ean eta 31n Tartun (Estonia). - Irailean proiektuaren azken txostenak eta 2016-17ko jarduerari dagokion diru-laguntza onetsita. Diru-laguntza zurituta: 179.771€. - Proiekturaren itxiera: proiektuan iraun bitartean, 255.193€-ko diru-laguntza kobratu da. Helburuaren %100 bete da 2017an

INGURUMENKO 2017KO HOBEKUNTZA PROGRAMA

4. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURADUNA	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
BIRGAIKUNTZA <i>Hiri birgaikuntzako, enpresen birkapenerako eta ikusizko eragina hobetzeko proiektuetan parte hartzea (ZEHARKAKO ALDERDIAK)</i> EPEA: 2017ko abendua<	2 proiektutan parte hartzea (Ekintzen %75)	Txonta auzuneko (Eibar) Hirigintza Kudeaketako proposamena aztertzea eta egitea	VISESAKO KUDEAKETA PLANEAN definituriko baliabideak	Visesako Ekonomia eta Finantza Saila	- Jarraipen batzordearen bi bilera, Txonta auzuneko hirigintza birsorkuntzako proiektuaren aurrerapena aztertzeko. Eibarko Udalarekiko hitzarmena suntsiaraztea eta industriak berriz hartzeko prozesuaren kudeaketarako zerbitzuen proposamena abiaraztea, guztira 18.000€. - Urteko askotarako helburua; 2018an jarraituko du. Helburuaren %100 bete da 2017an
		Eremu degradatuari eta birsorkuntzari buruzko izapidetzea (San Andres-Lekeitio)		Visesako Sail Teknikoa	- Lurraren kudeaketa: Behin betiko onesteko zain dago San Andres auzuneko Arau Subsidiarioen aldaketa zehatza. Eragozpen bat dago: EEABren aldeko txostena falta da, eta horretan ere zain daude ebaluazio estrategiko erraztuaren txostena noiz egingo (Ingurumen Sailaren menpekota). Sail horrekin hitz egindakoaren arabera, ingurumeneko txostena prest egongo da 2018ko maiatzetako. - Eremu degradatuaren adierazpena izapidetzea: txostena egiteko zain dago Lekeitio San Andres auzuneko eremu degradatuaren gaineko adierazpena. Aurreikuspenen arabera, 2018ko otsailean izango da. - Urbanizazio proiektua: urbanizazio proiektua idatzita dago eta hasierako onespina du. Arau subsidiarioen aldaketa noiz onetsiko zain dago behin betiko onesteko. Asmoa behin betiko onestea da, "baldintza" batekin: Arau Subsidiarioen aldaketa zehatza behin betiko onestea. Urbanizazio lanak 2018ko maiatzetan hasi nahi dira. Bi fase ezarriko dira urbanizazio lanak burutzeko, urte horretan 300.000€-ko diru-laguntza lortu ahal izateko. Urbanizazio lanen aurrekontua ia 2MM€ da. - Ez da lortu proiektuaren %100 aurten, proiektuaren epeak pixka bat atzeratu direlako, eta 2018ra igaro dira. Helburuaren %90 bete da 2017an

INGURUMENKO 2017KO HOBEKUNTZA PROGRAMA

5. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURADUNA	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
ZAINTZA TEKNOLOGIKOA <i>Energia-eraginkortasuneko eta hiri-birsorkuntzako politikak txertatzeko Fosten Reg proiektuan parte hartzea (ZUZENKO ALDERDIAK)</i> Iraupena: 2 urte (2005etik 2017ra).	Ekintzen %100 azken urtean	Energia-eraginkortasunari eta hiri-birsorkuntzari buruzko FOSTERREG proiektuan parte hartzea; azken fasea EPEA: 2017ko abendua	VISESako KUDEAKETA PLANEAN zehazturiko baliabideak	Berrikuntza eta Iraunkortasun ard.	- Otsailaren 14an, "Birgaikuntzarako laguntzen zatiketarako irizpide sozioekonomikoak" lantegia egin zen VISESAN. - Maiatzaren 10ean eta 11n, bilera eta proiektuaren azken hitzaldia Zagreben (Kroazia). - Urrian, proiektuaren azken txostenak eta 2016-2017ko jarduerako diru-laguntzak onetsi ziren. - Azaroaren 13an, FosteREG ezagutarazteko jardunaldia EJRen laborategian eginiko Kalitate Astearen baitan eta proiektua ixtea. Helburuaren %100 bete da 2017an

6. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURADUNA	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
ZAINTZA TEKNOLOGIKOA Eraikuntzaren industrializazioa (INGURUMENKO ALDERDIAK)	Pilota talde batean parte hartzea (ekintzen %75)	- Prototipoa 2Dn barik 3Dn egiteari buruzko analisia eta azterketa - Eraikuntza industrializatuari eta modelizazio birtualari buruzko BIM PILOTUAN parte hartzea - Ezarri beharreko pilotua aukeratzea EPEA: 2017ko abendua	VISESako KUDEAKETA PLANEAN zehazturiko baliabideak	Visesako Sail Teknikoa	- Eraikunek zuzentzen duen talde-lanean hartzen du parte VISESAk, eta 1. lerroko ildoak ezartzeko 4 bilera egin dira: eraikuntza industrializatua eta modelizazio birtuala, Euskadi 2020 zientzia, teknologia eta berrikuntza planaren baitan. - Helburu honetan zehazturiko ekintzak ez dira planifikatuaren arabera garatu eta aurreratu. Horregatik, 2018rako igaro dira betetzeke dauden ekintza horiek. Helburuaren %5 bete da 2017an

INGURUMENKO 2017KO HOBETUNTZA PROGRAMA

7. HELBURUA		EKINTZAK	BALIABID.	ARDURAD.	HELBURUAREN BILAKAERA
Definizioa	Adierazlea				
2017	112,808	77	1,457
2016	153,569	70	2,194
2015	88,453	72	1,229

**OINARRIZKO ADIERAZLEA: CO₂ IGORPENAK GUZTIRA
(CO₂T/pertsona)**



Ikusten denez, eraginkortasun-adierazlea %33,22 jaitsi da 2017an. Halaxe gertatu da gehienbat 2017an ez delako izan hozte-gaseko kargekin loturiko CO₂ igorpenik, baita 2016koaren aldean plantilla handitu egin delako ere.

URTEKO AIREKO SOX, NOX eta PM IGORPENAK GUZTIRA

VISESAk ez du atmosferarako igorpen-gunearekin loturiko instalaziorik, zeren eta administrazio-jarduerak egiten baititu bere egoitzetan.

VISESAren instalazioak aztertuta, soilik ibilgailuetako errekuntzako erregaiak sor ditzake gas horien igorpen garrantzitsuak.


Informazio hori eskuratzea ahalbidetzeko neurketarik ez dagoenez gero, igorpen horien zenbatespena egin da *Airerako igorpenak neurtzeko, zenbatesteko eta kalkulatzeko gida teknikoa, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretua eta EPRT Erregelamendua* oinarri hartuta igorpen horiek kalkulatzeko. Ondoren, 2016ko eta 2017ko isuriekin loturiko informazio hori bildu da:

ARABAKO BULEGO NAGUSIA

AIRERA EGINIKO URTEKO SOX, NOX eta PM IGORPENAK GUZTIRA

AIREKO IGORPENAK	A zifra	B zifra	R = A/B zifra
	Sortutako kantit. (t)	Pertsona kop.	Eraginkort.-adierazlea (t/pertsona)
NOX IGORPENAK			
2017	0,610	68	0,00897
2016	0,557	61	0,00913
2015	0,503	62	0,00811
SOX IGORPENAK			
2017	0,047	68	0,00069
2016	0,043	61	0,00070
2015	0,039	62	0,00063
PM10 IGORPENAK			
2017	0,071	68	0,00104
2016	0,065	61	0,00107
2015	0,059	62	0,00095

OINARRIZKO ADIERAZLEA: ARABAKO ZENTRALAREKIN LOTURIKO AIRE IGORPENAK (T/pertsona)



BIZKAIKO BAB


AIRERA EGINIKO URTEKO SOX, NOX eta PM IGORPENAK GUZTIRA

Egoitza horretan ez dago gasolio kontsumoari buruzko 2015eko daturik.

AIRE IGORPENAK	A zifra	B zifra	R = A/B zifra
	Sortutako kantit. (t)	Pertsona kop.	Eraginkort. adierazlea (t/pertsona)
NOX IGORPENAK			
2017	0,019	5	0,0038
2016	0,040	5(*)	0,008(*)
SOX IGORPENAK			
2017	0,001	5	0,0002
2016	0,003	5(*)	0,0006(*)
PM10 IGORPENAK			
2017	0,002	5	0,0004
2016	0,005	5(*)	0,001(*)

(*) Akatsa antzeman eta zuzendu egin da zentroan 2016an esleituriko pertsona kopuruan (61 zioen lehen eta 5 da orain) eta, beraz, eraginkortasun-adierazlea ere aldatu da

OINARRIZKO ADIERAZLEA: BIZKAIKO BAB-EKIN LOTURIKO AIRE IGORPENAK (T/pertsona)



GIPUZKOAKO BAB


AIRERA EGINIKO URTEKO SOX, NOX eta PM IGORPENAK GUZTIRA

AIRE IGORPENAK	A zifra	B zifra	R = A/B zifra
	Sortutako kantit. (t)	Pertsona kop.	Eraginkort.-adierazlea (t/pertsona)
NOX IGORPENAK			
2017	0,038	4	0,0095
2016	0,026	4(*)	0,0065(*)
2015	0,020	4(*)	0,0050(*)

SOX IGORPENAK			
2017	0,003	4	0,0008
2016	0,002	4(*)	0,0005(*)
2015	0,002	4(*)	0,0005(*)
PM10 IGORPENAK			
2017	0,004	4	0,0010
2016	0,003	4(*)	0,0008(*)
2015	0,002	4(*)	0,0005(*)

(*) Akatsa antzeman eta zuzendu egin da zentroan 2016an eta 2015ean esleituriko pertsona kopuruan (61 eta 62 zioen lehen eta 4 da orain) eta, beraz, eraginkortasun-adierazlea ere aldatu da.

ONARRIZKO ADIERAZLEA: GIPUZKOAKO BAB-EKIN LOTURIKO AIRE IGORPENAK (T/pertsona)




AIREKO URTEKO IGORPENAK GUZTIRA

VISESako egoitzen multzoa kontuan hartuta, azterturiko gasen dagozkien guztizko kopuruak azalduko dira orain:

AIRE IGORPENAK	A zifra	B zifra	R = A/B zifra
	Sortutako kantit. (t)	Pertsona kop.	Eraginkort.-adierazlea (t/pertsona)
NOX IGORPENAK			
2017	0,667	77	0,0087
2016	0,623	70	0,0089
2015	0,523	72	0,0073
SOX IGORPENAK			
2017	0,051	77	0,0007
2016	0,048	70	0,0007
2015	0,041	72	0,0006
PM10 IGORPENAK			
2017	0,077	77	0,0010
2016	0,073	70	0,0010
2015	0,079	72	0,0011

ONARRIZKO ADIERAZLEA: AIRERAKO IGORPENAK



Ikusten denez, igoera txikia gertatu da Nox igorpenen eraginkortasun-adierazleetan, %2,25ekoa hain zuzen ere, baina eutsi egiten zaio SOx igorpenetan eta gora egin dute partikulek. Halaxe izan da, igoera orokorra gauzatu delako igorpenetan hiru alderdietan. Aldi berean, gora egin du plantillak, eta horrek ondorioz, aldaketa horiek desberdinak dira eraginkortasun adierazleetan.

Igorpenek, aldi berean, ez dute aldaketa bera izan hiru zentroak banaka hartzen baditugu, zeren eta gasolio kontsumoarekin baitaude lotuta. Igoerak izan dira Arabako eta Gipuzkoako zentroetan eta jaitsiera Bizkaiko BABen. Arabari dagokionez, NOx, SOx eta PM10 igorpenek gora egin dute (sortutako kantitatea), %9tik gora; Gipuzkoan %46,15, %50 eta %33,33 hurrenez hurren eta Bizkaian, berriz, behera egin dute, %7,06, %6,25 eta %5,48 2016ko datuak erreferentziazat hartuta.

Aldi berean, 7 pertsona gehiago sartu dira plantillan Arabako zentroan, eta eutsi egin zaio beste bietan. Hots, plantilla %10,29 handitu da Arabako zentroan eta %10 zentro guztietan. Arestian esana dugunez, horrek arindu egin du eraginkortasun-faktoreen igoera; are gehiago, zenbait kasutan jaitsarazi egin ditu.

7. PROIEKTUETAKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

Gure sustapen guztiak “**VISESAREN diseinu eta eraikuntza irizpideak**” direlako jarraitu garatzen dira. Irizpide horiek eskakizun handiak eta gainprestazioak dakartzate berekin indarreko araudiari dagokionez, eta esanguratsuak dira energia-eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren arloan.

Arkitektoak eta zuzendaritza teknikoak kontratatzean, horiek baloratzeko, esleitzeko eta hautatzeko hainbat irizpide biltzen ditu **VISESAK**, hots:

- ❖ Ekodiseinuaren eta ingurumena kudeatzeko sistemen UNE-EN ISO 14001 ziurtagiria edo antzekoak.
- ❖ Honako arlo hauetan hobekuntza arkitektonikotzat baloratzen diren diseinuko irizpideak: energia kontsumoa, lehengaien kontsumoa, zarata, ingurune naturala, higienikoak eta argiak, zenbait kasutan BOE diseinatzeko ordenantzaren beraren gainetik daudenak.
- ❖ Arkitektoek aurkezturiko ingurumeneko irizpideak edo bestelakoak: baloratu eta puntu gehiago dakarte hornitzailearen lizitazioan.

VISESAK kudeaturiko proiektuetan, ondorengo taulan agertzen diren hainbat egoera izan ditzakegu:

VISESAK kontrataturiko proiektu motak	2015	2016	2017
Estudio idazleak ekodiseinua aplikatzen du VISESAREN proiektuan	3	1	1
Ekodiseinuaren ziurtagiria du gure proiektua idatzi duen estudioak eta VISESAREN diseinu eta eraikuntza irizpideak darabiltza	2	2	3
Gure proiektua idazten duen estudioak soilik VISESAREN diseinu eta eraikuntza proiektuak darabiltza	1	1	1

Energia-egiaztapena hobetzea ere ingurumeneko eta kalitateko bermetzat hartzen da. Horregatik, VISESAK %30eko gutxieneko energia-aurrezpena ziurtatu du bere eraikin guztietan, eta halaxe islatzen da A, B eta C energia-kalifikazioetan. 2017an diseinaturiko proiektuei dagokionez, honako energia-kalifikazio teoriko hauek lortu dira:

Proiektuen diseinuarekin loturiko kalifikazio teorikoak	2016	2017
B-46. 190 BOE. BILBO-BOLUETA. BIZKAIA.	B	A
G-66. 14 ES+ 16 BOE. AZKOITIA-FLOREAGA. GIPUZKOA.	B	A
G-70. 20 BOEA + 30BET. ZARAUZ-ALDAPETA. GIPUZKOA.	C	B
B-97. 65 BOE. SARRATU-BASAURI. BIZKAIA.	B	A
B-86. 72 BOE. BARAKALDO. BIZKAIA.	C	B

Horrez gain, VISESAk eguzki-energia atzemateko kolektoreak sartzen ditu bere sustapenetan (edo horren pareko iturri berriztagarria), hain zuzen ur bero sanitarioako beharrezko urteko guztizko energiaren %60 betetzeko gutxienez. Araudiak, berriz, %30ekoa eskatzen du.

Gainera, VISESAk sustapen guztien iraunkortasuna diseinatu eta ebaluatu du, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzarako Eraikuntza Iraunkorraren gida erabiliz eta bere etxebizitza guztiak A kalifikazioa edo maila handiagoa duten etxeko tresnekin hornituta emanez.

Azken urteetan, kontratazio publiko berdearen inguruko lanari ekin zaio, eta eraikuntza proiektuetan eta obren lizitazioetako baldintza-orrietan ingurumena lantzen hasi da.

Ingurumenaren iraunkortasunaren alde egite aldera (paperik ez kontsumitzea, bidaiak, etab.), elektronikoki aurkeztu ditzakete eskaintzak gure kontratazioetan hala nahi duten enpresek eta, gainera, lizitazioak internet bidez helarazten dira (hala, ez dute zertan gure egoitzara etorri).

8. OBRETAKE ETA SUSTAPEN BERRIETAKE INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

VISESAk sustaturiko obra guztietan, honako beharkizun hau ezartzen da: eraikuntza-enpresa guztiek ingurumena kudeatzeko sistema ezarrita eta egiaztatuta izatea eta, berariazko zenbait kasutan, hala posiblea ez denean. VISESAk ingurumena kudeatzeko plana izan dezake, kasuan kasuko eraikuntza-enpresak egin beharreko obraren garapen espezifikorako bere gain hartu beharrekoa.

Halaber, **VISES**Ak obretako eta sustapen berrietako ingurumenaren gaineko jokabidea zehazten duten alderdi nagusien kontrola eta segimendua egiten du. Horretarako, bere obrekin loturiko ingurumeneko informazioa eman dezaten eskatzen die **VISES**Ak urtero eraikuntza-enpresei.

VISESAk datu horiek hartzeko protokolo bat sortzeko, onesteko eta ezartzeko lanean dihardu. Izan ere, maizago emateaz gain, datuaren jatorria eta zehaztasuna ere bermatuko ditu ahal den neurrian, betiere askotariko obrekin eta sustapenekin eta eraikuntza-enpresekin loturiko datuak direla kontuan izanik.

Ondoren, 2017ko aldiari dagozkion bildutako datuak azalduko dira.

OBREKIN ETA SUSTAPEN BERRIEKIN LOTURIKO INGURUMENAREN GAINEKO ZEHARKAKO ALDERDIAK

ENERGIA ELEKTRIKOAREN KONTSUMOA

Eraikuntzaren arloan eginiko azterlanen arabera, eraikuntza bati loturiko energiaren guztizko kontsumoaren %30-%40 hornitzaileen transformazio-instalazioei dagokiela zenbatetsi da. Hala ere, datu horiek ez dira zehatzak, eta memoria honetan ez da kontuan hartu hornitzaileekin loturiko energia kontsumoa, baizik eta obra egitearekin loturiko kontsumoa eta eraikuntza-enpresek berek emandako informazioa oinarri hartuta.

Elektrizitate kontsumoak obra fasean	2016	2017
Kontsumituriko elektrizitatea (kWh)	106.681	171.389,47
Batez besteko elektrizitate kontsumoa (kWh/etx. eraikia)	627,5	630,1

Arestian esana dugunez, eraikitako etxebizitzaren bizitza baliagarrian izaten den zeharkako kontsumoak zehazten du energia elektrikoaren kontsumoa. Horrexegatik, iraunkortasunarekin loturiko jarduketa hauek burutzen dira sustapen guztietako eraikuntzetan:

- Sustapen guztien iraunkortasunari buruzko ebaluazioa IHOBek argitaraturiko “Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzarako eraikuntzaren eta birgaikuntza iraunkorraren gida” delakoaren bidez. VISESAk ere hartu du parte gida hori egiteko lanetan.
- Energia-iturri berriztagarriak ezartzea ACSren urteko eskariaren %60 betetzen duten eguzki-kolektore termikoa erabiliz, edo eraginkortasun handiko baterako sorkuntzako ordezko sistemak erabiliz.
- A kalifikazioa edo maila handiagoa duten etxeko tresna elektrikoekin hornituriko etxebizitzak.

- Hiriko altzariak eta eraikuntzako elementuak honako faktore hauek aintzat hartuta aukeratzea:
 - o Bizitza baliagarria (ahalik eta luzeena)
 - o Mantentzea (ahalik eta txikiena)
 - o Birjarpena (ahalik eta errazena)
 - o Ingurumen-eragina (ahalik eta txikiena: legez kontrolaturiko zura eta material birziklatuak erabiliz, energia berriztagarriak baliatuz, etab.).

ERREGAI KONTSUMOAK

VISESAREN sustapeneko obrak burutu bitartean, hona hemen obra horietan izandako gasolio kontsumoa:

Gasolio kontsumoak obrako fasean	2016	2017
MWh gasolioa	913,8	50,880
Batez besteko gasolio kontsumoa (MWh/ etxeb. eraik. kop.)	5,4	2,97

Eraikuntza-enpresek informazioaren, prestakuntzaren eta zentzuzko kontsumorako kanpainen bidez burutu dituzte ekintza nagusiak obra fasean gasolio kontsumoa gutxitzeko.

Bestalde, **VISESAREN** sustapenetan erregai kontsumoa (gasolioa eta gas naturala) gutxitzeko xedearekin, nabarmentzekoa da tenperatura baxuko berokuntza sistema – kondentsazioa- sustatzen dela. Sistema horiek oso errendimendu maila handiak dituzte, %90aren ingurukoak. Betiko galdarek, berriz, %80aren inguruko errendimendua dute.

ENERGIA KONTSUMOEN IGORPENAK

Ondoren, **VISESAREN** sustapenetako obrak burutu bitartean energia eta erregai kontsumoarekin loturiko CO₂ igorpenak azalduko dira.

CO ₂ igorpenak obrako fasean	2016	2017
Obrako kontsumo elektrikoarekin loturiko igorp. (CO ₂ t eq)	22,4	65,98
Obrako erregai kontsumoarekin loturiko igorp. (CO ₂ t eq)	189,3	13,37
Igorpenak (CO ₂ t eq) GUZTIRA	211,7	79,35

UR KONTSUMOA

Ondoren, Visesaren sustapenetako obrak burutu bitartean izandako ur kontsumoarekin lotuta dauden argibideak bildu dira.

Ur kontsumoak obrako fasean	2016	2017
Ur M ³	2.660	3.416
Batez besteko ur kontsumoa (m ³ / etxeb. eraikien kop.)	15,6	12,55

Halaber, **VISESAREN** jarduna lagungarria da eraikitako etxebizitzetako ur kontsumoaren eraginkortasuna hobetzeko. Horretarako, diseinu eta eraikuntza irizpide hauek ezartzen ditu burutu beharreko proiektuetan:

- Lorategi txikia pilatzea ureztatu beharreko eremua ahalik eta txikiena izan dadin. Lorategirik gabeko eremuak estaltzeko, estalkia, azala, legarra, teila gorria edo antzekoak erabiliko dira, ureztaketako ura lurrundu ez dadin.
- Soropilaren ordeztu estalki-landareak, zuhaixkak edota legarra, azala, zura, teila, etab. jartzea.
- Klimari egokituriko landare espezieak, kokatzen direneko ingurunea, ur kontsumo txikia, mantentzea, etab. Ahal den neurrian, autoktonoak izango dira landare espezieak.
- Zuhaitzak eta zuhaixkak gogorrak izango da, ahal dela hosto galkorrekoak eta fruiturik gabekoak, inguruneke mantentze-lanak eta zikintasuna gutxitzeko.

HONDAKINAK SORTZEA

Visesaren sustapenetako obretan sortzen diren hondakinak eraikuntzako eta eraispeneke hondakinak dira, horien izaeraren arabera bereizten direnak eta hondakin arriskutsutzat eta ez-arriskutsutzat jotzen direnak.

Hondakin Ez-arriskutsuak obrako fasean	2016	2017
Sortutako Hondakin Ez-arriskutsuen Tn	859	386,57
Sortutako batez besteko HEA (t/etxeb. eraik. kop.)	5,1	1,421
Hondakin arriskutsuak obrako fasean	2016	2017
Sortutako Hondakin Arriskutsuen Tn	0,7	40,70
Sortutako batez besteko HA (t/etxeb. eraik. kop.)	0,004	0,23

7. atalean aurkezturiko 2017ko datuak B43 Boluetako (171 etxebizitza) eta B67 Leioako (101 etxebizitza) obretakoak dira, 2017an buruturikoak.

Energia-egiaztapena hobetzea ere kalitateko eta ingurumeneko bermetzat jotzen da. Horregatik, VISESAk gutxienez %30eko energia aurrezpena egiaztatzen du bere eraikin guztietan eta, ondorioz, A, B eta C energia-kalifikazioak eskuratzen ditu.

Etxebizitzek lorturiko kalifikazioak	2015	2016	2017
A kalifikazioa	%0	%0	(*)
B kalifikazioa	%100	%81	(*)
C kalifikazioa	%0	%19	(*)

(*) 2017an, salbuespenez, ez da bukatutako obrak jaso eta onartu eta, horregatik, ez dago urte horretako energia-kalifikazioei buruzko datuak.

Kalifikazio horiei esker, erreferentziako balioekiko lorturiko batez besteko aurrezpena izan da (dokumentua: "Eraikinetako energia-eraginkortasunari buruzko kalifikazioa, IDAE 2015"):

Kalifikazioen bidez lorturiko aurrezpenak	2015	2016	2017
CO2 igorpenen aurrezpena araudia betetzeari dagokionez	%64	%46	(*)
Oinarrizko energiaren aurrezpena araudia betetzeari dagokionez	%61	%42	(*)

(*)2017an, salbuespenez, ez da bukatutako obrak jaso eta onartu eta, horregatik, ez dago urte horretako CO2 isurietako aurrezpen-mailari eta energia-kalifikazioen oinarrizko energiari buruzko datuak.

9. INGURUMENKO LEGEZKO BETEKIZUNEN ETA BESTE BETEKIZUN BATZUEN BETETZE-MAILA

VICESAk aplikatu beharreko ingurumeneko legezko betekizun guztiak betetzen ditu:

INGURUMEN ARLOA	EGOERA
SAILKATURIKO JARDUERAK - Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, EAEko Ingurumenaren Babesari buruzkoa. (EHAA, 59 zk., 1998/03/27) - Apirilaren 23ko 7/2012 Legea, hainbat lege barneko merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko aldatzeari buruzkoa (VIII. Kapitulua)	ARABAKO ZENTRALA: Irekitzeko lizentzia -Bulego nagusia: 2009/05/04 -Gasteizko egoitza 2009/04/21
	BIZKAIKO BAB: Irekitzeko lizentzia, 2011/04/29
	GIPUZKOAKO BAB: Irekitzeko lizentzia, 2013/04/16
KOLEKTORERA EGINIKO ISURIAK - Uztailaren 20ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onetsi zen (EAO, 176 zk., 01/07/24) - Ekainaren 23ko 1/2006 Lege Autonomikoa, Urei buruzkoa (EHAA, 2006/07/19) - Gasteizko Udaleko kolektorera eginiko isuriak arautzeko Erregelamendua, Etxekoak ez diren isurien Udal Ordenantza-1992 - Bilboko Ur Partzuergoaren isuriak arautzeko Erregelamendua (Erregelamendua, BAO, 63 zk., 1989) - Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Saneamendu eta Arazketa Zerbitzua emateko Ordenantza Arau-emailea (2016ko urtarrila). - Añarbeko Uren Mankomunitateko saneamendu-sarerako isuriak arautzeko Erregelamendua (2006ko maiatz)	ARABAKO BULEGO NAGUSIA: Isuria egiteko baimena -Bulego nagusia: Alta (Bisa) 2009/01/30 eta Alta AMVISA 2010/02/26 -Gasteizko egoitza: Alta (Bisa) 2009/01/30 eta Alta AMVISA 2010/03/03
	BIZKAIKO BAB: Komunitateko zerbitzuak. Hala ere, inplizituki egongo litzateke Jarduera Lizentzian.
	GIPUZKOAKO BAB: Komunitateko zerbitzuak. Hala ere, inplizituki egongo litzateke Jarduera Lizentzian.
HIRIKO HONDAKINEN PAREKO HONDAKINAK - Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, EAEko ingurumenaren babesari buruzkoa - Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea. - Otsailaren 8ko NAM/304/2002 AGINDUA, hondakinak balorizatzeko eta desagerrarazteko eragiketak eta Europako hondakinen zerrenda argitaratu dituenak. Akats ZUZENKETA. - Maiatzaren 4ko 17/2012 Errege Lege-Dekretua, ingurumenaren arloko premia-azko neurriei buruzkoa. 22/2011 Legeari buruzko zenbait aldaketa ezarri ditu (EAO, 2012ko maiatzaren 5koa). - Gasteizko hondakinen garbiketari, bilketari eta garraioari buruzko Ordenantza (ALHAO, 85 zk., 2005/7/29koa). 2017ko otsailaren 23an aldatua (ALHAO, 77 zk., 2007/6/27). - Bilboko Udaleko Ingurumena Babesteko Udal Ordenantza (2000/6/10). - Donostiako Udaleko hiriko hondakinak biltzeari buruzko Udal Ordenantza (GAO, 74 zk., 2002/04/23). - Hiriko hondakin solidoen buruzko ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespena (GAO, 2010/10/28).	ARABAKO BULEGO NAGUSIA: Bulego nagusia eta Gasteizko egoitza: bilketa mankomunatua
	BIZKAIKO BAB: udal bilketan ematen dira
	GIPUZKOAKO BAB: udal bilketan ematen dira

INGURUMEN ARLOA	EGOERA
HONDAKIN ARRISKUTSUAK - Uztailaren 20ko 833/1988 ED, 20/1986 Lege betearazteko Erregelamendua onetsi duena. 833/1988 ED aldatu duen ekainaren 20ko 952/1997 ED. - Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea. EAO, 2011ko uztailak 29). Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legea indargabetu du. - Otsailaren 8ko MAM 304/2002 Agindua, hondakinak balorizatzeko eta desagerrarazteko eragiketak eta Europako hondakinen zerrenda argitaratu dituen (EAO, 43 zk., 2002/02/19). (Hondakinak balorizatzeko eta desagerrarazteko eragiketak eta Europako hondakinen zerrendari buruzko MAM 304/2002 Aginduaren (EAO, 61 zk., 2002/03/12) akatsen zuzenketa). - Maiatzaren 4ko 17/2012 Errege Lege-Dekretua, ingurumenaren arloko premia-azko neurriei buruzkoa. 22/2011 Legearen gaineko zenbait aldaketa sartu ditu (EAO, 2015eko maiatzaren 2koa). - Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 2014/955/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatu duena, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritik (DOUE L370/44 2014/12/30). - Martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua, hondakinak Estatuaren lurraldean garraiatzea arautu duena (EAO, 83 zk., 2015/04/07)	Hondakin arriskutsuen sortzailea izatea jakinarazteko salbuespena zentro eta egoitza guztietan, 2004/01/26. Jakinarazpenaren salbuespena eguneratzea, 2017/01/19
HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUAK - Otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, EAEko ingurumena babesteari buruzkoa. - Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea - Otsailaren 8ko MAM/304/2002 AGINDUA, hondakinak balorizatzeko eta desagerrarazteko eragiketak eta Europako hondakinen zerrenda argitaratu dituen. Akats zuzenketa. - Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena (EHAA, 54 zk., 2009/03/18), 423/1994 Dekretua indargabetu du (EHAA, 239 zk., 1994/12/19). - Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 2014/955/EB Erabakia, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatu duena, betiere Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritik (DOUE L370/44 2014/12/30). - Martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua, hondakinak Estatuaren lurraldearen barruan garraiatzea arautzen duena (EAO, 83 zk. 2015/04/07).	Hondakin Ez-arriskutsuen sortzailea izateari buruzko adierazpena eguneratzea zentro eta egoitza guztietan, 2017/03/06
GAILU ELEKTRIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK Otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, gailu elektrikoei eta elektronikoei buruzkoa (EAO, 45 zk., 2015eko otsailaren 21ekoa).	Ekipamendu elektriko eta elektroniko guztiak Gasteizko egoitzan biltzen dira aprobetxatzeko. Hondakinak baimendutako kudeatzaileari ematen zaizkio
PILA ETA METAGAILU HONDAKINAK - Otsailaren 1eko 106/208 Errege Dekretua, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumeneko kudeaketari buruzkoa. 2010eko uztailaren 23ko 943/2010 Errege Dekretua. Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumeneko kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua aldatu da. (EAO, 189 zk., 2010/08/05). - Uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretua, Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumeneko kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua aldatzen duena. (EAO, 177 zk., 2015/07/25)	ARABAKO BULEGO NAGUSIA: bulego nagusia eta Gasteizko egoitza: udalaren gune garbietan ematen dira
	BIZKAIKO BAB: printzipioz ez da pila hondakin sortzen
	GIPUZKOAKO BAB: printzipioz ez da pila hondakin sortzen

INGURUMEN ARLOA	EGOERA
EITE - Uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua onesten duena (EAO, 2007ko abuztuak 29). 2008ko uztailaren 22ko Agindua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren (EITE) gaineko arauak ematen dituena (EHAA, 181 zk., 2008/09/23). - Azaroaren 27ko 1826/2009 Errege Dekretua, eraikinetako instalazio termikoen erregelamendua aldatzen duena, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua onesten duena (EAO, 2009/12/11). - Apirilaren 5eko 238/2013 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduko zenbait artikulua eta jarraibide tekniko aldatzen dituena, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onetsia (EAO, 89 zk., 2013/04/13). - Urtarrilaren 16ko 5/2018 DEKRETUA, industriako segurtasunaren erregelamenduaren menpeko instalazioetarako eta ekipamenduetarako berrikuspen prozedura ezartzen duena (EAO, 20 zk., 2018/01/29).	ARABAKO ZENTRALA: bulego nagusia eta Gasteizko egoitza: galdara eta girotze-sistema -Martxan jarri zeneko data: 2009/07/28 -Urteko mantentzea: 2018/05/15 -Arauzko azken ikuskapena: 2019 BIZKAIKO BAB: Jabeen Erkidegoaren girotze-sistema GIPUZKOAKO BAB: Jabeen Erkidegoaren girotze-sistema
NEGUTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORATUAK - EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 zk.ko Erregelamendua (EB), negutegi-efektuko gas fluoratuei buruzkoa eta 842/2006 Erregelamendua (EE) indargabetu duena. - Ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretua, gas fluoratuen eta horietan oinarrituriko ekipamenduen merkaturatzea eta erabilera arautzen dituena, baita horiek erabiltzen dituzten profesionalen egiaztapena ere. - Ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuaren akats zuzenketa: gas fluoratuen eta horietan oinarrituriko ekipamenduen merkaturatzea eta erabilera arautzen ditu, baita horiek erabiltzen dituen profesionalen egiaztapena ere. (EAO, 211 zk., 2010/08/31) - Otsailaren 17ko 115/2017 Errege Dekretua, gas fluoratuen eta horietan oinarrituriko ekipamenduen merkaturatzea eta erabilera arautzen dituena, baita horiek erabiltzen dituzten profesionalen egiaztapena ere. Horrez gain, gas fluoratuak isurtzen dituzten jardueretako instalazioetarako beharkizun teknikoak ezartzen ditu. - Irailaren 21eko PRA/905/2017 Agindua, gas fluoratuen eta horietan oinarrituriko ekipamenduen merkaturatzea eta erabilera eta horiek erabiltzen dituzten profesionalen egiaztapena arautzen eta gas fluoratuak isurtzen dituzten jardueretako instalazioetarako beharkizun teknikoak ezartzen dituen otsailaren 17ko 115/207 Errege Dekretuko I eta II. eranskinak aldatzen dituena.	ARABAKO ZENTRALA: mantentze-lanak egiteko baimendutako enpresak mantentzen ditu girotze-ekipamenduak BIZKAIKO BAB: Jabeen Erkidegoaren girotze-sistema GIPUZKOAKO BAB: Jabeen Erkidegoaren girotze-sistema
SUAREN KONTRAKO BABESA 2007ko martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretua, larrialdiak eragin ditzaketen jarduerak egiten diren zentroen, establezimenduen eta lokalen autobabeserako Oinarriko Araua onesten duena (EAO, 72 zk., 2007/03/24). - Presio ekipamenduei buruzko 769/1999 Errege Dekretua, 1244/1979 Errege Dekretua aldatzen duena. 769/1999 ITC MIE-AP5 Errege Dekretuko MIE-AP5 Jarraibide Tekniko Osagarria. - Urriaren 31ko 842/2013 Errege Dekretua, eraikuntzako produktuak eta eraikuntzako elementuak suaren kontrako erreakziorako eta erresistentziarako propietateen arabera sailkatzeko modua onesten duena. - Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua, industriako establezimenduetako suaren kontrako segurtasunari buruzko erregelamendua onesten duena (EAO, 303 zk., 2004/12/17). (2267/2004 EDaren akats zuzenketa (EAO, 55 zk., 2005/03/05). - Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Agindua, Eraikin Ez-industrialetako suaren kontrako Babeseko Instalazioak Egiaztatze Eredua onesten duena (EHAA, 159 zk., 2014/08/25). - Maiatzaren 22ko 513/2017 Errege Dekretua, suaren kontrako babeseko instalazioen erregelamendua onesten duena. Akats zuzenketa, 1994ko maiatzaren 7koa (EAO, 109).	ARABAKO ZENTRALA: bulego nagusia eta Gasteizko egoitza. Urteko mantentzea SVCrekin. Azken azterketa: 2018/02/28 BIZKAIKO BAB: urteko mantentzea SEGURMArekin. Azken azterketa: 2017/06/16 GIPUZKOAKO BAB: urteko mantentzea BABESA SUZAirekin. Azken azterketa: 2017/04/10

INGURUMEN ARLOA	EGOERA
TENTSIO ALTUA - Otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua, linea elektrikoetako baldintza teknikoei eta segurtasun bermeei eta horien ITC-LAT 01 – 09 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Erregelamendua onesten duena (EAO, 2008ko martxoaren 19koa). Dekretu horrek indarrrik gabe uzten du Tentsio Altuko Aireko Linea Elektrikoen Erregelamendua onesten duen apirilaren 28ko 3151/1968 Dekretua indargabetzen duena. - Maiatzaren 7ko 560/2010 Errege Dekretua, industriako segurtasunaren arloko hainbat arau aldatzen dituen zerbitzuetako jarduerak libreki eskuratzeari eta baliatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legera egokitzeko, baita zerbitzuetako jarduerak libreki eskuratzeari eta baliatzeari buruzko Legera egokitzeko hainbat lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legera egokitzeko ere. 560/2010 Errege Dekretuaren akats zuzenketa. 1984ko uztailaren 6ko Agindua, zentral teknikoetako, azpiestazioetako eta transformazio zentroetako segurtasun baldintza teknikoei eta segurtasun bermeei buruzko Erregelamenduaren MIE-RAT Jarraibide Tekniko Osagarriak onesten dituena. - Urriaren 30eko 229/2012 DEKRETUA, industriako instalazioak martxan jartzeko prozedura errazteari buruzkoa. (EHAA, 233 zk., 2012ko abenduak 3). - Maiatzaren 9ko 337/2014 Errege Dekretua, tentsio altuko instalazio elektrikoek baldintza teknikoei eta segurtasun bermeei eta ITC-RAT 01 - 23.Jarraibide Tekniko Osagarriei buruzko Erregelamendua onesten duena (EAO, 139 zk., 2014/06/09). 337/2014 Errege Dekretuaren akats zuzenketa. - Urtarrilaren 16ko 5/2018 DEKRETUA, industriako segurtasunaren erregelamenduaren menpeko instalazioetarako eta ekipamenduetarako berrikuspen-prozedura ezartzen duena.	ARABAKO ZENTRALA: Bulego nagusia eta Gasteizko egoitza: Transformadorea dauka. -Martxan jarri zeneko data: 2009/01/22 -Arazuko azken ikuskapena: 2017/04/07
	BIZKAIKO BAB: Ez dago
	GIPUZKOAKO BAB: Ez dago

Gainera, VISESAk kontuan izango ditu AED (Arloko Erreferentziako Dokumentuak) horiek egiten direnean, eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemari abiaraziko dira, hots:

1. Barneko prozesuak konparatuko ditu gomendaturiko BEMPeKin eta bikaintasun benchmarking-arekin, hobetzeko balizko ekintzekin identifikatzeko.
2. Arloko ingurumeneko jokabide espezifikoek adierazleak izango ditu aintzat, eta egokienak aukeratzeko dituzten intereseko aldeei jakinarazteko (Ingurumen Adierazpena).
3. Ingurumen Adierazpenean aipatuko du zelan hartu diren kontuan BEMPak eta, bidezkoa bada, bikaintasun benchmarking-a.
4. AEDen edukia izango du kontuan ingurumeneko eginkizuna etengabe hobetzeko informazio-iturri gisa.

10. ELKARRIZKETA IREKIA INTERESEKO ALDEEKIN

VISESAn gizartearekin duen konpromisoa adierazten du Eginkizunetik bertatik, eta konpromiso hori gauzatzeko, Enpresako Gizarte Erantzukizunaren (EGE) ikuspegitik, hainbat ekimenetan egiten du lan, erantzukizunaren eta kudeaketaren gardentasunaren gaineko helburuan aurrera egiten ahal izateko.

GARDENTASUN ATARIA

Bere Gardentasun Atariaren bidez, beste urrats bat egin du VISESAn herritarren zerbitzura egokitzeko konpromisoan, bi ikuspegi izanik: balio publikoa sortuta eta gardentasun kulturako eredua hartuta bere eginkizunak betetzeko baliabide publikoak erabiltzean eta erabakiak hartzean.

VISESAn Q-epearen (Kudeaketa Aurreratuaren Aldeko Euskal Erakunde Publikoak) gardentasun taldean hartzen du parte: publizitate aktiboa ebaluatzeko eredu tipoa definitzeaz, mantentzeaz eta hobetzeaz arduratzen da. 2017ko maiatzaren, Q-epea osatzen dugu erakundearen aplikaziorako araudien betetze-maila neurtu zen. VISESAn %87.27ko betetze-maila lortu du, eta batezbestekoaren gainetik kokatu da (%71.70).

Bestalde, 2017ko azaroan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko sektore publikoko erakundearen gardentasunaren gaineko betebeharrak betetzeko balorazio-taula osatu zen, eta ebaluatoriko 23 gardentasun-irizpide guztiak bete dira.

Kanpoko balorazio horiek honako uste hau indartzen dute: jarduerari eta gobernu onari buruzko informazio garrantzitsua aldi-aldi argitaratzeari eta eguneratzeari (publizitate aktiboa) eta herritarrek eginiko informazio-eskaerei erantzuteko prest egoteari esker, (informazio publikoa eskuratzeko eskubide-eskaerak), zabaldu eta indartu egingo da herritarrek VISESAn duten konfiantza. Horrez gain, erraztu egingo da herritarrek parte hartzeko kultura sortzeko bidea, haien eremukoak diren gai publikoetan baterako erantzukizunarekin jokatzeko.

IRAUNKORTASUN MEMORIA

Iraunkortasun memoria VISESAn bere borondateaz eskaintzen duen txosten publikoa da, eta erakundearen duen kokapena eta jarduerak biltzen ditu gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik. Finantza-balantzearen dokumentu osagarria da, urtero argitaratua, eta akziodunentzat, bezeroentzat, aliatuentzat eta oro har gizartearentzat diren proiektuen, onuren eta gizarte ekintzen berri ematen du.

Memoria, berez, gizarte erantzukizunaren komunikazioaren oinarria da, ezaugarri nagusi duen gardentasun printzipioaren etsenplua. Global Reporting Initiativek (GRI) sustaturiko eredua da nazioarte mailako estandarrik ospetsuena, VISESAn iraunkortasun memoria egiteko aukeratua duena.

Iraunkortasun memoriako datuen bilketak 2013tik 2017ra arteko aldia hartzen du barne, eta 3. memoriaren azken bertsioa 2018an argitaratuko da. VISESAn konpromisoa datuak eguneratzea eta bi urterik behin argitaratzea da.

Iraunkortasun memoria www.VISESA.eus web orrian argitaratzen da, eta bertan dago eskuragai.

ARRISKUEN KUDEAKETA eta GOBERNU ARDURATSUA

2009tik, Eusko Jaurlaritzako “Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoko erakundeen, sozietateen eta fundazioen gobernu arduratsurako gida” lantzen du VISESAk; Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB) zuzentzen du gida hori. Bertan daude jasota erakundeko ekonomiaren, ingurumenaren gizartearen arloko kudeaketa eraginkorra egiteko hainbat alderdi. Hartara, Lankidetzarako eta Ekonomiaren Garapenerako Erakundeak (ELGA) ezarritako gardentasun eta gobernu onaren gaineko printzipioak betetzen dira.

Aldi berean, VISESAk “Barneko Kontrola Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoko erakundeetan, sozietateetan eta fundazioetan ezartzeko eta garatzeko gida” abiarazi du, arriskuak kudeatzeko eta barneko kontrola egiteko sistema ezarrita.

Hiru hilean behin, VISESAk bi gida horien ezarpen-mailaren berri ematen dio ELGAri

2013an eginiko kanpoko auditoriaren arabera, %62,5eko betetze-maila du Gobernu Arduratsuaren gidan, eta gainerako erakundeetan, berriz, %58,66 da; Barneko Kontroleko Gidaliburuaren betetze-maila, aldiz, %62,25 da, eta gainerako erakundeetan %60,48. Auditoriaren ondoren, hobetzeko arloak identifikatu eta ekintza plan bat zehaztu da giden betetze-mailan aurrera egiteko.

2016an, autoebaluazioa burutu zen bi gidekiko kokapena baloratzeko, eta eginiko zenbatespenen arabera, betetze-maila %77,5 da Barneko Kontroleko Gidan eta %74 Gobernu Arduratsuan. Beraz, berretsi egiten da VISESAk arlo horietan aurrera egiten jarraitzeko duen konpromisoa.

2017. urtean, autoebaluazioaren ondoriozko ekintza plana landu da. Hartara, quick-hit-ak identifikatu dira, zeinen ondorioz aurrerapen handia izango baita Gobernu Arduratsuko gidan, baita giden betetze-maila %100 izan dadin beharrezko zenbait ekintza eta hobekuntza proiektu ere.

11. INGURUMENEO GORABEHERAK

2017. urtean ez da ingurumeneko gorabehera garrantzitsurik jasota utzi **VISESAk** egiten dituen jardueren, produktuen eta zerbitzuen esparruan.

Kontrataturiko eraikuntza-enpresek adierazi dutenez, **VISESAko** sustapenetako obrek ez dute ingurumeneko zigorrik edota zehapenik jaso araudia ez betetzeagatik.

VISESAk, era berean, ingurumeneko zehapenik jaso ez duela adierazten du.


12. BALIOZKOTZE DATUAK

AENOREk baliozkotu du adierazpen hau; ES-V-0001 zenbakiarekin akreditaturiko ingurumen egiaztatzailea da.

2017ko datuei dagokie ingurumen adierazpen hau. Urtero egiten da ingurumen adierazpena, publikoarekin eta intereseko beste alde batzuekin komunikatzeko eta elkarrizketarako tresna den aldetik, hain zuzen **VISES**Ak ingurumenaren aldetik duen jokabideari buruzkoa. Web orri honetan dago argitaratua:

<http://www.visesa.eus/>

Hurrengo adierazpena 2019an aurkeztuko da.



Adierazpena egin duena:

Goretti García Arenal

VISESako Prozesu eta Sistemen zuzendaria